

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

49/2026 Mozioa, maiatzaren 13koa, Ekialde Hurbileko gatazkak Arabako familia eta enprestan duen eragina arintzeko Arabako Foru Aldundiak abian jarriko dituen neurrien berri izateko

Arabako Batzar Nagusiek, 2026ko maiatzaren 13an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

49/2026 Mozioa, maiatzaren 13koa, Ekialde Hurbileko gatazkak Arabako familia eta enprestan duen eragina arintzeko Arabako Foru Aldundiak abian jarriko dituen neurrien berri izateko.

1. Arabako Batzar Nagusiek onartzen dute gatazkak Ekialde Hurbilean eta energia-merkatuen aldakortasunak Arabako familietan, enpleguan, inbertsioan eta jarduera ekonomikoan duen eragina, eta adierazten dute laguntzen dutela foru-autonomia fiskala erabiltzen ekonomia egonkortzeko eta Arabako produkzio-sarea babesteko tresna gisa.

2. Arabako Batzar Nagusiek positibotzat jo dute Arabako Foru Aldundiak finantzak eta zergak arintzeko premiazko eta ezohiko neurri-sorta, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin koordinatuta definitu dena, gatazkak Ekialde Hurbilean duen eragina arintzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote presako neurrien sorta ahalik eta arinen hedatzeko, eta bermatzeko neurri horiek finantza- eta zerga-arintzearen ondorioak autonomoen, mikro enpresen eta enpresa txikien diruzaintzan gauzatzen direla.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Ekialde Ertaineko gatazkaren bilakaeraren, energia-merkatuen eta gatazka horrek Arabako ekonomian duen eraginaren etengabeko jarraipena egin dezala, lurraldeko eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzan.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 13a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA